



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA  
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA  
MARTIN BARUA PICAZA ne 27, 4? PTA 48003 BILBAO  
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62 [www.bmf-fvm.org](http://www.bmf-fvm.org)  
<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

## AKTA

### **BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOKO BATZAR OROKORRA**

Bilbon, 2021eko maiatzaren 8an, 10:00etan, bigarren deialdian, BMFren Ohiko Batzarra eratu da, lehendakariak behar bezala deituta, Bizkaia-Miribilla pilotalekuan, Bilboko Martin Barua kalea 27an.

Bileraren buru, Federazioaren lehendakaria den Victor Manuel Vivar Moreno aurkitzen da. Ana Belen Piqueras Sanchez idazkaria ez dago bileran, ezin izan da bertaratu, eta ondorioz Karmelo Ruiz de Alegria Martin mahaikideak ordezkatu du ekitaldi honetan. Zuzendaritza Batzordeko kideak ere bertan dira Jose Felix Fernandez De Ponga (lehendakariordea), Alberto Nieto Ibarrechebea (diruzaina), Ana Sesumaga Gonzalez, Garbiñe Okerantza Zulueta, Fernando Perez Ruiz eta Alberto Cardoso Corrales eta Alberto Cardoso Corrales.

#### **BERTARATUAK:**

##### **AKREDITAZIOA EDO ZUZENeko ORDEZKARITZA DUTEN KLUBAK:**

Deustuko Menditarrak, Baskonia M.T, Gallarraga, Ganguren M.T, Ganzabal M.T, Goiko Mendi, Padura M.T, Turista Barakaldo, Ganerantz M.T, Etorkizuna M.T, S.M. Encartaciones, GoiGain M.T, Egunsentia C.M., Lezama Gailur M.T, Munarrikolanda M.T., Cicloturistas de Euskadi C. La Rioja, Beraskola M.T, Bidelagun M.K.E, Tallu M. Kirol Kluba, c.M. Aitzeder M.T, eta Untza M.T.

##### **BMFren HAUTESKUNDE BATZORDEAK LEGEGINTZALDI HONETARAKO ESKATUTAKO ORDEZKARITZA OROKORRA AURKEZTU EZ DUTEN KLUBAK, BAINA BATZAR HONETAN UNEAN-UNEAN ORDEZKATUAK IZAN DIRENAK:**

Lutxana C.A., Juventus, S.D. Leioa M.T. eta Gailurra M.T.

#### **KIROLARIAK:**

Victor Manuel Vivar, Garbiñe Okerantza Zulueta, Jose Felix Fernandez De Ponga, Fernando Perez Ruiz, Alberto Cardoso Corrales, Alberto Nieto Ibarrechebea, Alfredo Gorbeña Monzon eta Ricardo Hernani Perez.

#### **TEKNIKARIAK:**

Ibon Beaskoetxea Bustamante eta Ana Sesumaga Gonzalez.

#### **EPAILEAK:**

Mireia Trigueros Garrote.

Victorrek, BMFko lehendakari gisa, ongietorria eman die bertaratutakoei, eta eskerrak eman dizkie etortzeagatik. Azaltzen duenez, Batzar hau bideokonferentzia bidez egiteko baimena eskatu zaio Aldundiari, baina gaurko egunez oraindik ez da erantzunik jaso. Azaldu du legez beharrezkoa dela Batzar hau aurrez aurre egitea, eta hau horrela, COVIDaren aurkako prebentzio-neurri egokiak hartu direla bertan hartu direla.

Jarduneko idazkariak bertaratutakoen zenbaketaren berri eman du, honela geratu delarik: boto ordezkariak duten 25 klub (68 boto), kirolarien 8 ordezkari (8 boto), 2 teknikari eta epaile bat (3 boto) bertaratu dira, hau horrela 36 kide bertaratu dira eta 79 ordezkariak-boto.

Behin Batzarra formalki eratuta, kideren batek bilera utziko balu, bere botoa abstentzio-tekniko gisa zenbatuko da.

### **OHIKO BATZARRAREN ERAKETA:**

Aurreko datuak ikusita, Batzarra balio osoz eratutzat ematen du lehendakariak, Federazioaren Estatutueta 20. artikuluan jasotakoa jarraituz.

Gogorarazten da, BMFren azken Batzarretan erabilitako eskema berari jarraituz, ordezkari ofizialen laguntzaile gisa etorri diren pertsonak (klub bakoitzeko bat) bilerara sartzea baimendu dela, argi utziz horiek ez dutela boto-eskubiderik.

BMFren Estatutuen 19. artikulua jasotzen duenaren arabera, ez denez bestelako gairik sartzeko eskaerarik jaso, deialdiko gai-zerrendan jasotakoei heldu zaie..

### **GAI ORDENAREN LEHEN PUNTUA: 2020ko EKAINAK 25eko AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA HALA BADAGOKIO.**

Jakinazten da akta horren edukia batzarreko kide guztiei bidali zaiela deialdiarekin batera. Horregatik, arrazoi praktikoengatik, hitzez hitz irakurri gabe uztea proposatzen da, irakurritzat ematea, eta bozketara zuzenean pasatzea eskatzen da, hala badagokio onartzeko.

Jarraian, bozketa egin da, eta bertaratutakoek aho batez onartu dute.

### **GAI ORDENAREN BIGARREN PUNTUA: ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIAREN AURKEZPENA.**

Lehendakariak Zuzendaritza Batzorde berria aurkezten du jarraian:

Lehendakaria: Victor Manuel Vivar Moreno

Lehendakariordea: Jose Felix Fernandez de Ponga

Idazkaria: Ana Belen Piqueras Sanchez

Diruzaina: Alberto Nieto Ibarrechebea

Segurtasuna: Alberto Cardoso Corrales

Bidezidorrak: Ana Sesumaga Gonzalez

Komunikazioa: Garbiñe Okerantza Zulueta

Lasterketak: Fernando Perez Ruiz

Lasterketa Batzordea: Igor Lopez Gonzalez

Martxa Nordikoa: Alfredo Gorbeña Monzon

Formakuntza: Sonia Saenz Martin

Batzordekidea: Karmelo Ruiz de Alegria Martin

### **HIRUGARREN PUNTUA: ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDE BERRIAK BERRESTEA**

Lehendakariak Zuzendaritza Batzordeko kide berriak aurkeztu ditu, berrets ditzaten, eta aho batez onartu da:

Lasterketa Batzordea: Arrate Bastida Diaz de Otazu

Eskia: Gabi Regil Amorena

Bide publikoak eta komunikazioa: Arkaitz Vidal Ibarguen.

Era berean, Ana Belen Piqueras Sanchezek arrazoi pertsonalengatik idazkari kargua utzi duela eta Karmelo Ruiz de Alegria Martinek ordezkatu duela jakinarazten da.

Bertaratutakoek aho batez onartu dute.

### **LAUGARREN PUNTUA: KLUB BERRIAK SARTZEA.**

Jakinarazten da, gaur bi klub berri aurkezten direla Batzarrera: Munay Kirol Kluba eta Matxinkorta Mendi Kirol Kluba. Klub horiek kide izateko legezko baldintza guztiak betetzen dituzte, eta beren proiektua Batzarraren aurrean aurkeztera gonbidatzen dituzte, hau horrela kide izatea ofizial egiten dira eta ongietorria ematen zaie.

### **GAI ORDENAREN BOSGARREN PUNTUA: 2020ko KONTABILITATE - ITXIERA**

Alberto Nieto Ibarrechebea diruzainak kontuak azaldu ditu. Jakinarazi du deialdiarekin batera bidali direla horri buruzko dokumentazioa eta Egunsentia klubeko ordezkariak eskatutako argibideei emandako erantzunak, eta horiek Batzarreko kideei bidali ere zaizkiela, bilera aurretik baloratze aldera.

Lehenik eta behin, balantzeari, haren aktiboari eta pasiboari buruzko xehetasunen berri ematen da.

Ondoren, kontabilitate-itxierari buruzko informazioa eman da, eta 2020ko aurrekontuaren gauzatzeari buruzko azalpen zehatza eman da.

Egindako azalpen, batzarkideen galdera, argibide eta adierazpenen ondoren, kontabilitate - itxiera bozkatu da eta aho batez onartu da. Egunsentia klubeko ordezkariak eskatu du aktan jasota gera dadila ez dagoela ados BFAk jasotako diru-laguntzei dagokienez aplikatu beharreko BEZaren irizpidearekin.

### **SEIGARREN PUNTUA: 2021erako AURREKONTUA.**

Diruzainak Batzarrerako deialdiarekin batera bidalitako oharren eta Batzar aurretik jasotako argibideen eta bidalitako erantzunen azalpena egiten du.

Galderen eta argibideen txanda ireki da, eta, bat bera ere ez dagoenez, bozketa egin da, eta 2021erako aurrekontua aho batez onartu da.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA: ARLO DESBERDINETARAKO 2021erako JARDUEREN AURKEZPENA.**

Gobernu Batzordeko arlo desberdinetako arduradunei eman zaie hitza, honela hasita:

**Bidezidorren arloa:** Ana Sesumaga Gonzalez.

Ea, Arrigorriaga, Alonsotegi, Otxandio, Zaldibar, Elorrio, Ermua, Mallabia eta Barakaldo udalerrietan hainbat PR bidezidor birhomologatzeko lanak aurreikusita daude.

GR bidezidorrei dagokienez, Bizkaiko itzulia, Aldundiarekin sinatutako hitzarmenari eusten zaio, eta hainbat lan aurreratuta daude, eta beste batzuk egiteko daude.

Aurtengo xendazaletasun liga aurkeztu da, pandemiaren ondorioz egin behar izan diren aldaketekin.

Sustatzaileei mantentze-ikastaroak eskaini nahi zaizkie, Zierbenako Udalari ikastaro bat emanez.

Pandemiagatik, xendazaletasun ligan autobusak alde batera utzi dira, eta etapa guztiak zirkularrak izatera behartuta gaude.

**Mendiko segurtasuna eta ingurumena:** Alberto Cardoso Corrales.

Urte honetarako egitasmoak:

Aldundiko suhiltzaileekin eta Ertzaintzako Zaintza eta Erreskate Unitatearekin harremanetan hasi dira, eta segurtasun-batzordean ordezkari bat inplikatzea lortu dute. Horrek gertakarien eta kasuistikaren berri zuzena izatea ekarriko digu.

112 aplikazioa, 7.7 kanala, sustatzea eta baliozkotzea. Helburua, mendian segurtasun handiagoz mugitzea.

Lehenik eta behin, lehen sorospenetan borondatezko gidariak prestatzea, haien kualifikazioa egiaztatzeko, "Kirolaren etorkizuneko legera" egokituz, eta, ondoren, prestakuntza hori mendizale guztiei zuzentzea. Klubetako borondatezko gidak prestatzen ari dira, eta lau ikastaro egingo dituzte aurten. Klub bakoitzeko bi pertsonak BMFren diru-laguntza jasoko dute. Ikastaro horiek Asfedebiren bidez egiten dira, baimendutako prestakuntza-zentro gisa.

**Emakumea eta mendia V komunikazioa:** Garbiñe Okerantza Zulueta.

Emakumea eta mendia Batzordea sortu berri da.

Helburuak: emakumeak ez du modu aktiboan parte hartzen klubetan eta bere zuzendaritzetan; beraz, emakume mendizalea parte hartzera animatu nahi da.

Proiektua (12 hilabete, 12 emakume): martxoan hasi zen proiektua eta hileroko mendiarekin zerikusia duten eta erreferentzia diren emakumeak aurkeztuko dira elkarrizketak jasotzen dituen bideo bidez. Berdintasunaren aldeko tontorrek proiektua: irteera inklusibo bat egin nahi da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna adierazteko.

**Martxa Nordikoa:** Alfredo Gorbeña Monzon.

Helburua kirol-diziplina berri hori ezagutaraztea eta bistaraztea da.

Klubekin harremanetan jarri gara martxa nordikoaren onurak ezagutarazteko eta bazkideen artean martxa nordikoaren egoera ikusteko. Zabalkunderako eta prestakuntzarako bideoak egiten ari gara.

Eskola-kirolean sartu nahi dugu, baina, horretarako, hezitzaileak prestatu behar dira (begiraleak eta entrenatzaileak). EMF lanean ari da monitoreentzako eta arbitroentzako ikastaroak egiteko.

Urriaren 17rako Ipar Izarra Nordic Wolking Bilbao klubaren eta Federazioaren artean antolatu nahi da martxa nordikoaren aurkezteko eguna Bizkaian. Aurkezpena, erakustaldia eta barne lehiaketa izango da klubeko jendearekin.

**Mendi Lasterketak:** Fernando Perez Ruiz.

Hazkunde handiko modalitatea da. Izena eman duten azken hamar klubetatik erdiek jarduera nagusitatu dute. 2019an 40 mendi lasterketa baino gehiago antolatu ziren Bizkaian, guztira 6000 izen-emate izan zirelarik.

Aurten mendiko lasterketen hirugarren liga antolatu nahi da. Baita arbitroen ikastaro bat eta Teknikazio zentro bat ere Ubiden.

Halaber, Suzien Kluba eta Bizkaiko Mendizale Federazioa Trail estazio bat sustatzen ari dira Gorbeia inguruan, Zeanuri zentro neuralgiko gisa hartuta. Hasiera batean, Zeanuriko Udalaren, Aldundiaren eta Parke Naturalaren Patronatuaren lankidetzaz lortzen ari gara, eta Basquetourren bidez Turismoaren inplakazioa lortzeko bidean gaude.

**Mendi-eskola eta eskola-kirola:** Jose Felix Fernández De Ponga (lehendakariordea).

Mendi eskola koordinatzeaz arduratuko da. Pandemiaren ondorioz, lau ikastaro baino ezin izan dira egin. Baina federatu atxikien zerrenda batekin berriz egingo dira.

Azkenik, eskalada-bideak berrekipatzeko proiektua martxan jartzea lortu dugu, prestakuntza-eremuei lehentasuna emanez, segurtasun handiagoa izan dezaten.

Eskola-kirolari dagokionez, urte konplexua izan da; izan ere, ezin izan dugu gauzatu aldundiarekin ezarritako programa, etengabeko aldaketek kudeaketa oztopatuz, eta hau horrek zaildu egin digu programa honetarako emandako diru-laguntza aldundiaren aurrean justifikatzea.

## **ZORTZIGARREN PUNTUA: KLUB BERRIEN SARRERA-KUOTA.**

Presidenteak jakinarazi du berdin mantentzen dela klub berrien sarrera-kuota.

Gehiengoz onartu da, aldeko 68 botorekin eta 9 abstentzio teknikorekin, batzarretik alde egiteagatik.

## **BEDERATZIGARREN PUNTUA: LEHENDAKARIAREN TXOSTENA**

Estatistikak. 12.557 federatu gara gaur egun, iaz baino 1.300 gehiago. Adingabe gutxiago, 499 bakarrik, 60 gutxiago, emakumeak % 31. Fedme % 23,4.

Ez da zerbitzua berritu Fit Learnig aplikazioarekin, batez ere gure beharrak ez betetzeagatik eta guretzat kostu handia izateagatik. Hala ere, proiektuaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, eta, beraz, Moodle plataformarekin lan egingo dugu, gure behar ekonomiko eta teknikoetara egokitzeko abantailarekin.

Ubideko Teknikazio Zentroari buruzko informazioa eman da. BMFri 1.999,92€ko prezioan esleitutako udal-zentroa da, gehi 1.427,00€ inguruko mantentze-lana. Guztira, urteko 3.427 gastu finko gehi kontsumoa. 16 lagunentzako lekua du, eta 25 lagunentzako jangela. Bi hektareako lursaila du, kanpindendak jartzeko aukera ematen duena, aldeaz aurretik Udalari baimena eskatuz. Prest jartzeko 12.000€ inguruko inbertsioa egin behar izan zen. Ez du klubekin funtzionatu, hori zelarik gure helburua. Eskolakirolarekin eta alokairu puntualen batekin erabili da. Ilusioz beteriko proiektua da, eta pandemiaren ondoren klubaren ekintzak, prestakuntza, teknikazioa, topaketak, etab. bezalako jardueretarako nola funtzionatzen duen ikustea espero dugu. Hiru lurraldeetarako eta Euskal Mendizale Federazioarako proiektua da.

Eskalada-bideak berrekipatzeko egiten ari diren lanaren berri eman da. Aldundiari 17.940€ko aurrekontua aurkeztu zaio, eta onartzea espero da. Horrek 40 lanegun eskatzen dizkie teknikariei. Aldundiak eskatzen du gai honetan lekuan lekuko udalak ere inplikatzeko.

Jarraian, presidenteak jakinarazi du Batzar honetara Euskal Federazioaren Zuzendaritza Batzorde osoa gonbidatu duela, uste baitu berarekin helburuak partekatuz joan behar dugula, BMF haren zati garrantzitsua baita.

Etorri diren kide guztiek estamentu baten ordezkariak izateko, eta lehendakariak, berriz, Padura M.T. enpresaren ordezkariak. Horregatik, lehendakariak ez du bertaratzeko baimenik eskatu bilera honen hasieran, biltzarkideak baitira.

Gonbidatu gisa, EMFko presidenteari eman zaio hitza, eta eskerrak eman dizkio federazioari Euskal Mendizale Federazioko lehendakari hautatzeko emandako babesagatik.

Lau urteetarako helburu nagusia lau federazioek elkarrekin arraun egitea da. Horretarako, piramide-formakoa ez den egiturarekin egingo dute lan, hiru lurraldeetako ordezkariak osatutako batzordeen bidez arituko direlarik. Batzarrean landutako alderdiei buruz hitz egin da: borondatezko gidak, ikastaroen ziurtagiriak, federatuen kopurua handitzea eta azkenik, federatu guztiak zorientzea pandemian zehar izan duten jarrera bikainagatik. Ez dago aurreikusita Euskadikoaren Batzarra noiz egingo den, lehenbailehen egitea eta aurrez aurrekoa izan dadila nahi da.

## HAMARGARREN PUNTUA: HAUTESKUNDE PROZESUA.

Lehendakariak azpimarratu du ez dagoela ados Euskal Federazioak lurraldeetako emandako ordezkagarritasunarekin, eta ez direla betetzen Estatutuetan adierazitako ehunekoak, ez baitira kontuan hartu dagozkien batzarretako zenbaki errealak. Uste du nahastu egin zirela kalkulua egiteko moduan. Azkenean, baina, ez du garrantzirik izan.

## HAMAIKAGARREN PUNTUA: GALDE-ESKEAK.

Federazioaren aldetik klubak diru-laguntzei buruzko araudia nola geratzen den galdetu da, eta presidentek erantzun du orain arte bezala mantentzen dela, baina ongietorria izango dela Batzarrean baloratzeko diru-laguntzen azken banaketa proportzional eta bidezkoagoa egin ahal izateko ekarpen oro.

Ekarpenak egiten dira lizentziaren ordainketaren zerga-kenkariari dagokionez, eta Federazioari eskatzen zaio ekitaldi honetan klubek egin behar izan duten administrazio-lana egin dezan, ahalegin handia suposatu duelako, erlojuaren kontra eta behar besteko egiturarik gabe. Presidenteak erantzun dio ahaleginak egingo direla klubek lan hori egin behar ez izateko, edo gutxienez, Ogasunari informazioa modu erosoagoan, automatizatuagoan, artxibo bat edo fitxategi bat gaineratuaz helarazi ahal izateko.

Baskoniako eta Ganzabaleko ordezkariak galdera bat egin dute federatuek aterpea erabiltzeari buruz, eta arduradunekin batera argituko dute. Hala ere, arauak babeslekuaren webgunean daude eta argi eta garbi adierazten dituzte erabilera-lehentasuna adierazten duten salbuespenak.

Beste aztergaririk ez dagoenez, Batzarra amaitutzat eman da, eta bertaratutako guztiei eskerrak eman zaizkie parte hartzeagatik.



Sin.: Karmelo Ruis de Alegría Martín

BMF Jarduneko Idazkaria

Sin.: Víctor Manuel Vivar

BMFren Lehendakaria